



## Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa: III. Eranskina EMEKIN-BIDERAGARRITASUN PLANA

Urtea: 2022 | Ekonomia Sustapena

### Deskribapena

Enpresak sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa-proiektuei laguntzeko dirulaguntzak.

Dirulaguntzak **GAUZAZKO LAGUNTZATZAT** hartuko dira, eta pertsona onuradunari eskubidea emango zaio enpresak sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko.

### Pertsona onuradunak

Gipuzkoan abian jarriko den enpresa bat sortzeko asmoa duten emakumeak, edozein dela ere hartzen duten forma juridikoa, eta gutxienez enplegu bat sortzeko aurreikuspena dutenak.

### Diruz lagunduko diren jarduerak

Bideragarritasun plana: pertsona edo talde sustatzaileari, ideia ontzeko eta bideragarritasun planaren eratzeko prozesuan laguntzeko ekintzak, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak [homologatutako entitateen](#) bidez

Enpresa sortzeko aholkularitza-zerbitzuak ematerakoan, proiektu bakoitzeko gehienez ere 25 orduko ordu-dedidazio hautagarria aurreikusten da bideragarritasun-planerako.

### Dirulaguntzak emateko prozedura

**Lehiarik gabekoa:** dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurak amaitu arte emango dira, eskaerak jaso diren ordenaren eta eska dakiekeen informazio guztia bete izanaren arabera

### Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin

### Bete behar diren epeak:



- **Proiektuen hasiera data: 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.**
- **Eskaerak aurkezteko epea:**
  - 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartean hasitako proiektuak: **2022ko uztailaren 21ean**, 12:00etan.
  - 2022ko uztailaren 1etik 2022ko urriaren 31ra bitartean hasitako proiektuetan, eskaera **proiektua hasi eta hurrengo hilabete naturalaren barruan egingo da.**
- **Proiektuak justifikatzeko epea:**
  - 2022ko maiatzaren 31 baino lehen hasitako proiektuen kasuan: **2022ko uztailaren 27a baino lehen.**
  - 2022ko ekainaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean hasitako proiektuen kasuan: **2022ko urriaren 31 baino lehen.**
  - 2022ko irailaren 1etik aurrera hasitako proiektuen kasuan: **2023ko apirilaren 1a baino lehen.**

#### Araudi aplikagarria

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia.](#) Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21an erabakiz onartu zen (2022ko uztailaren 04koa GAO, 126 zk).

#### Kofinantzaketa

Programak EGFen (Europako Gizarte Funtsa) kofinantzaketa komunitarioa (% 50) du “EGF zure etorkizunean inbertitzen du goiburuzaz

#### Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/emakumeekintzailea>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

#### Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

#### EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943–112287
- Kudeaketa Administrazioa: 943–112218

Emaila: [sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus)